

ANEXO BASES

| GAZTEDI UK BEKAK 2024 | BECAS GAZTEDI UK 2024 |
|--|---|
| LANEKOAK EZ DIREN PRAKTIKAK EGITEKO BEKAK 2024 - DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK | BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA DE BECAS PARA LA REALIZACIÓN DE PRÁCTICAS NO LABORALES 2024 |
| ZIOEN AZALPENA | EXPOSICIÓN DE MOTIVOS |
| <p>Leioako Udalak, Tokiko Erakundeei buruzko 2/2016 legeak 17. Artikuluan dioenarekin bat eginez, udalerria den heinean, bere eskumenekoak diren ondokoak garatzen ditu besteak beste, gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea, tokiko ekonomia eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo politikak, osasun publikoa sustatzea, kudeatza, defendatza eta babestea, gizarte-zerbitzuak antolatza, planifikatza eta kudeatza, Kultura eta kultura-jarduerak antolatza eta sustatza.</p> | <p>El Ayuntamiento de Leioa, de acuerdo con lo establecido en el art. 17 de la Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi, ejerce competencias propias como municipio entre otros, en los ámbitos materiales de planificación, ordenación y gestión de políticas de juventud y desarrollo local económico y social y políticas o planes locales de empleo, así como en promoción, gestión, defensa y protección de la salud pública, ordenación, planificación y gestión de los servicios sociales y ordenación y promoción de la cultura y de actividades culturales.</p> |
| <p>Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio Bizkaiko Lurralde Historikoko gazte-politika integralak behar bezala garatzeko jarduera-esparru orokor koordinatua ezartza, eta, horretarako, neurri zehatzak hartza, Bizkaiko Gazteak 2030 Foru Estrategian jasotako helburuak eta konpromisoak lortze aldera.</p> | <p>Asimismo, corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, establecer un marco general coordinado de actuación para el adecuado desarrollo de las políticas integrales de juventud del Territorio Histórico de Bizkaia, mediante la adopción de medidas concretas dirigidas a la consecución de los objetivos y compromisos recogidos en la estrategia foral de juventud “<i>Bizkaia Gazteak 2030</i>”</p> |
| <p>Foru-estrategiaren barruan biltzen diren jardun-arlo nagusiak dira, alde batetik, gazteen emantzipazioa (prestakuntza, enplegua, etxebizitzeta eta familia) eta, bestetik, gizarte-eraikuntza (inklusioa, aniztasuna, osasuna eta ongizatea, kultura-identitatea, iraunkortasuna, parte-hartza).</p> | <p>Las principales áreas de actuación que contempla dicha estrategia foral son, por un lado, la emancipación de las personas jóvenes (formación, empleo, vivienda y familia) y por otro, la construcción social (inclusión, diversidad, salud y bienestar, identidad cultural, sostenibilidad, participación).</p> |
| <p>Esparru horren barruan, Leioako Udalak “<i>Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Berango, Leioa eta Sopelako Udalen arteko lankidetza-hitzarmena, 2024 urterako, gazteriaren arloko politika integrala ezarri, bultzatu eta garatzeko</i>” lankidetza-hitzarmena sinatu du.</p> | <p>Dentro de este marco, el Ayuntamiento de Leioa firma el “<i>Convenio de Colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y los ayuntamientos de Berango, Leioa y Sopela, para la implantación, impulso y desarrollo de las políticas integrales de juventud, durante el año 2024</i>”</p> |

| | |
|--|--|
| Lankidetza-hitzarmena sinatuta, eskualdea osatzen duten udalerrieta gazteei zuzendutako ekintzak bultzatzeko eta horietan parte hartzeko konpromisoa hartu dute udal sinatzaileek. | Con la firma del convenio de colaboración los ayuntamientos se comprometen a impulsar y participar en las acciones dirigidas a las personas jóvenes de los municipios que integran la comarca. |
| Aipatutako hitzarmen horren barruan, 2024ko programazioan, eskualdeko gazteen besteren konturako enplegua sustatze aldera, Leioako Udalak konpromisoa hartu du <i>LANEKOAK EZ DIREN PRAKTIKAK EGITEKO BEKA PROGRAMA</i> garatu eta bultzatzeko, “ <i>Gaztedi Uribe Kosta</i> ” (Barrika, Berango, Gorliz, Leioa, Lemoiz, Plentzia, Sopela, Urduliz) osatzen duten 8 udalerrieta gazteei zuzenduta. | Incluido en el citado convenio y dentro de la programación de 2024, con el fin de fomentar el empleo por cuenta ajena de los y las jóvenes de la comarca, el Ayuntamiento de Leioa se compromete a desarrollar e impulsar el programa de <i>BECAS PARA LA REALIZACIÓN DE PRÁCTICAS NO LABORALES</i> dirigidas a las personas jóvenes de los 8 municipios que componen “ <i>Gaztedi Uribe Kosta</i> ” (Barrika, Berango, Gorliz, Leioa, Lemoiz, Plentzia, Sopela, Urduliz). |
| Horretarako, Leioako Udalak, Gazteria sailaren eta Beharginzaren arteko elkarlanaren bitartez aipatutako programa ezarriko du. | Para ello, el Ayuntamiento de Leioa, implementará el mencionado programa con la coordinación de los departamentos de Juventud y Beharginzta. |
| 1. artikulua.- DEIALDIAREN HELBURU ETA XEDEA. | Artículo 1.- OBJETO Y FINALIDAD DE LA CONVOCATORIA. |
| Erreferentziako lankidetza hitzarmenean parte hartzen duten udaletan erroldatutako 18 eta 29 urte bitarteko gazteei zuzenduriko, inguruko enpresetan, gehienez 6 hilabetez, Lanekoak ez diren praktikak egiteko beka programaren oinarri arautzaileak eta deialdia ezartzea. Enpresa, lan profesionalak burutzeko kontratazioa ahalmena duen edozein erakunde bezala ulertzen da. | Establecer las bases reguladoras y la convocatoria de becas para la realización de prácticas no laborales, por un periodo máximo de 6 meses, por parte de personas jóvenes tituladas entre 18 y 29 años y empadronadas en los ayuntamientos participantes del convenio de colaboración de referencia, en empresas del entorno, considerándose éstas cualquier entidad con capacidad de contratación para el desarrollo de labores profesionales. |
| 2. artikulua.- ONURADUNAK: | Artículo 2.- PERSONAS BENEFICIARIAS: |
| Deialdi honetan aurreikusitako beken onuradun izan daitezke baldintza hauek betetzen dituzten GAZTEAK: | Podrán ser beneficiarias de las becas previstas en la presente convocatoria las PERSONAS JOVENES que reúnan los siguientes requisitos |
| <ul style="list-style-type: none"> - 18-25 urte izatea praktikaldia hastean. | <ul style="list-style-type: none"> - Tener entre 18 y 25 años, en el comienzo del periodo de prácticas. |
| <ul style="list-style-type: none"> - Edo, 26-29 urte izatea praktikaldia hastean, betiere Gazteen Berme Sisteman altan emanda egotea. | <ul style="list-style-type: none"> - O tener entre 26 y 29 años, en el comienzo del periodo de prácticas, si está dado/a de alta en el Sistema de Garantía Juvenil. |
| <ul style="list-style-type: none"> - Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera “Gaztedi Uribe Kosta” hitzarmenean parte hartzen duten udalerrieta batetan erroldatuta egotea (Barrika, | <ul style="list-style-type: none"> - Estar empadronado/a en alguno de los municipios participantes junto a Diputación Foral de Bizkaia del convenio “Gaztedi Uribe |

| | |
|--|--|
| Berango, Gorliz, Leioa, Lemoiz, Plentzia, Sopela, Urduliz). | Kosta” (Barrika, Berango, Gorliz, Leioa, Lemoiz, Plentzia, Sopela, Urduliz). |
| – Lanbide-heziketako titulua izatea (erdi-mailako edo goi-mailako), edo goi mailako titulazioa ikaskuntza artistikoetan edo kirol arlokoetan izatea, edo unibertsitateko titulua edo profesionaltasun ziurtagiria edukitzea. | – Estar en posesión de un título de Formación Profesional (Grado Medio o Superior), titulación de grado superior en enseñanzas artísticas o deportivas, un certificado de Profesionalidad o titulación oficial universitaria. |
| – Prestakuntzarekin lotura zuzena duten hiru hilabetetik gorako lan-esperientziarik ez edukitzea | – No tener más de tres meses de experiencia laboral previa en puestos directamente relacionados con la formación cursada. |
| – Enplegu gabe egotea eta Lanbiden lan eskatzaile gisa agertzea. | – Estar en desempleo e inscrito/a en Lanbide como demandante de empleo |
| – Diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galdua Zigor edo administrazio arloko zehapenik ez izatea eta horretarako ezgaitzen duten lege debekatuen sartuta ez egotea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexuagatiko bereizkeria gauzatzeagatik gertatu direnak barne. | – No estar sancionadas ni penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni estar incursas en prohibición legal alguna que les inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres. |
| Deialdi honetan ondoko baldintzak betetzen dituzten ENPRESEK parte hartu ahal izango dute: | Podrán participar en esta convocatoria las EMPRESAS que cumplan los siguientes requisitos: |
| – Legez eratuta egotea eta egoitza soziala edo lantokia Bizkaian izatea. | – Estar legalmente constituidas y tener sede social o centro de trabajo en Bizkaia. |
| – Enpresa eskatzaileek egunean izan beharko dituzte Administrazio Publikoarekiko zerga betebeharra, baita Gizarte Segurantzarekiko betebeharra ere. | – Estar al corriente de sus obligaciones frente a las diferentes Administraciones Públicas con las que tengan exigencias de carácter tributario, así como de sus obligaciones con la Seguridad Social. |
| – Bekaren onuraduna gizarte segurantzan altan ematea Lanekoak ez diren praktiken epigrafean. | – Dar de alta en la Seguridad Social a la persona becada en el epígrafe correspondiente a <i>prácticas no laborales en empresas</i> . |
| – Programak dirauen bitartean, Lanekoak ez diren praktiketan dagoen gaztea tutorizatzeko gaitasuna duen langileria edukitzea. | – Disponer de personal para tutorizar a la persona en prácticas no laborales durante el periodo de ejecución de este programa. |
| – Diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galdua Zigor edo administrazio arloko zehapenik ez izatea eta horretarako ezgaitzen duten lege debekatuen sartuta ez egotea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 | – No estar sancionadas ni penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni estar incursas en prohibición legal alguna que les inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por |

| | |
|--|---|
| Legearen arabera sexuagatiko bereizkeria gauzatzeagatik gertatu direnak barne. | incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres. |
| 3. artikulua.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA; MODUA ETA EPEA. | Artículo 3.- LUGAR, FORMA Y PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES. |
| <i>LEKUA</i> | <i>LUGAR</i> |
| Eskaerak, nagusiki Leioako Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez bideratuko dira Udaletxean.leioa.eus | Las solicitudes se presentarán preferentemente a través de la Sede Electrónica de Leioako Udal: Udaletxean.leioa.eus |
| Halaber, eskabide-orriak Leioako Udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuetan (HAZ Udal eta HAZ Gaztelubide), bai eta urriaren 1eko 39/2015 Legean (Administrazio Publikoen Administrazio Procedura Erkidearena) prestatutako erregistroetan ere aurkeztu ahal izango dira, horretarako Udalak jarriko dituen inprimakietan, udaletxean.leioa.eus helbidean eskuragarri. | Asimismo, también se podrán presentar las solicitudes en los Servicios de Atención Ciudadana del Ayuntamiento de Leioa (SAC Casa Consistorial y Gaztelubide), pudiéndose presentar igualmente en los registros habilitados a tal efecto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en los impresos que a tal efecto dispondrá el Ayuntamiento, y que se encuentran disponibles en udaletxean.leioa.eus. |
| Egoitza elektronikoan aurkeztu behar dute horretarako legeak behartzen dituen pertsonek edo entitateek. | En el caso de obligados legales a relacionarse electrónicamente con la administración, la presentación se hará en Sede Electrónica. |
| <i>ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA</i> | <i>DOCUMENTACIÓN A APORTAR CON LA SOLICITUD</i> |
| <i>GAZTEAK:</i> | <i>PERSONAS JÓVENES:</i> |
| <ul style="list-style-type: none"> - LEABD (Lanbiden lan eskatzaile gisa egotearen gaineko agiria). - Lanbideren Kurrikulum Vitaea behar bezala eguneratua - Lan bizitza txostena behar bezala eguneratuta. - Gazteen Berme Sisteman altan egotearen agiria (soilik, 26-29 urte bitartekoak). | <ul style="list-style-type: none"> - DARDE (Documento acreditativo de estar inscrito/a en Lanbide como demandante de empleo). - CV de Lanbide debidamente actualizado. - Vida laboral debidamente actualizada. - Informe de alta en el Sistema de garantía juvenil.(únicamente personas de entre 26 y 29 años). |
| <i>ADMINISTRAZIOAREN ESKU DAUDEN BETEKIZUNAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEN DUEN INFORMAZIOA</i> | <i>INFORMACIÓN ACREDITATIVA DEL CUMPLIMIENTO DE REQUISITOS EN PODER DE LA ADMINISTRACIÓN</i> |
| Aurkeztu beharreko dokumentuak Leioako Udalak dituenean, ez da beharrezkoa izango berriz aurkeztea, betiere zein sailetan eta noiz aurkeztu ziren zehazten bada, bost urte baino gehiago igaro | Cuando los documentos que hay que presentar estuvieran en poder del Ayuntamiento de Leioa, no será necesario volver a presentarlos, siempre y cuando se haga constar la fecha y la dependencia en |

| | |
|--|---|
| <p>ez badira agiriok aurkeztu zireneko procedura amaitu zenetik eta aldaketarik izan ez badituzte.</p> | <p>la que fueron entregados, que no haya transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento al que correspondan, y que los mismos no hayan sufrido modificación alguna.</p> |
| <p>Leioako Udalak, eskuragarri dauden datubitartekitzako sistemen bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu Administrazioaren esku dauden interesdunen datuei buruz, bai eta Gaztedi UK Bekak 2024 diru-laguntza administratiboki izapidetzeko eskatzen den beste edozeini buruz ere, horretarako inprimakietan adierazitakoaren arabera. Administrazio publikoen arteko datu-bitartekitzarako oinarria honako hauetan zehazten da: pertsona fisikoen babesari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6. artikuluan eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko. Hori dela eta, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak dituzten dokumentuak edo ziurtagiriak eskatzeari utziko zaio, betiere interesdunak [edo haren ordezkariak] datu horiek erabiltzearen aurka egiten ez badu; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu. Arrazoi teknikoak direla-eta elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, Leioako Udalak izapideak egiteko behar diren datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu. Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikuluak adierazten duen bezala, administrazioek lankidetzan jardun behar dute datu-trukearen inguruan, eta haien esku dauden herritarrei buruzko datuak eman behar dituzte.</p> | <p>El Ayuntamiento de Leioa, mediante los sistemas de Intermediación de datos disponibles, va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración, así como cualquier otra requerida para la tramitación administrativa de la participación en el programa de Becas Gaztedi UK 2024 de acuerdo lo señalado en los formularios al efecto. El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concreta en el artículo 6 del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas y en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración, así como la demás legislación aplicable. Es por ello por lo que se dejarán de solicitar documentos o certificados que contengan datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada [o su representante] no se oponga al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes. Si por causas técnicas la interoperabilidad no fuera posible el Ayuntamiento de Leioa podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación. Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el Artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno de la Intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos de la ciudadanía que obren en poder de estas.</p> |
| <p>Ofizioz, honako betekizun/informazio hauek egiaztatu eta/edo sartuko dira expedientearen, interesdunak berariaz aurka egiten ez badu:</p> <p>GAZTEAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Errolda datuen egiazapena | <p>De oficio se verificará y/o incorporará al expediente, salvo manifestación expresa en contra por parte del/a interesado/a, lo siguiente:</p> <p>PERSONAS JÓVENES:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Verificación de los datos de empadronamiento |

| | |
|---|---|
| ENPRESAK: | EMPRESAS: |
| <ul style="list-style-type: none"> - Ogasunarekin betebeharrok egunean dituela egiazatzen duen justifikazioa. - Eskatzaileak, indarrean dagoen legeriaren arabera, Gizarte Segurantzarekin derrigorrezko lotura badu, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiarekin ordainketa egunean duela egiazatzen duen justifikazioa. | <ul style="list-style-type: none"> - Justificación de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias. - Justificación de estar al corriente del pago con la Tesorería General Seguridad Social, en el caso de que la solicitante, de acuerdo con la legislación vigente, tuviera relación obligacional con la Seguridad Social. |
| Diru-laguntza jasotzeko eskaera aurkezta bada, aldi berean, beste erakunde publiko edo pribatu baten, Leioako Udalaren aurrean aurkezten denak hori beren-beregi zehaztu beharko du, aipatuz zein erakunde edo erakundeei eskatu zaien eta eskatutako, edo hala badagokio, jasotako zenbateko zehatzak. | En el caso de haberse presentado paralelamente solicitud de subvención para la misma actividad ante cualquier otro organismo, público o privado, la solicitud ante el Ayuntamiento de Leioa deberá incluir manifestación expresa en tal sentido, con indicación de la institución o instituciones ante las que se haya presentado solicitud de financiación, así como con expresión de la cuantía solicitada o, en su caso, recibida. |
| Kasuan kasuko berezitasunak aintzat harturik, Udalak eskatzaileari eska diezaioke egoki deritzon edozein agiri osagarri. | El Ayuntamiento podrá, en atención a cada caso concreto, requerir a la persona solicitante cualquier otra documentación complementaria que considere oportuna. |
| <i>Eskabideak baztertzea:</i> | <i>Exclusión de solicitudes:</i> |
| Oinarri hauetan azaltzen diren baldintzak betetzen ez duten pertsona edo entitateen eskabideak ez dira aintzat hartuko, eta, ondorioz, gaitzetsiko dira. | No se tendrán en cuenta y, en consecuencia, se desestimarán, aquellas solicitudes que incumplan algún requisito reflejado en las bases reguladoras de la presente convocatoria |
| <i>Osorik ez dauden edo akastunak diren eskabideak:</i> | <i>Solicitudes incompletas o defectuosas:</i> |
| Aurkeztutako eskabidea edo erantsitako dokumentazioa osorik ez balego edo konpon daitekeen akatsik baleuka, eskatzaileari esango zaio 10 lan eguneko gehienezko epean konpontzeko, jakinarazpen hori egin eta biharamunetik zenbatzen hasita. Jakinaraziko zaio, halaber, horrela egin ezean eskabidea bertan behera geratuko dela. | En el caso de que la solicitud presentada o la documentación adjuntada sea incompleta o adolezca de algún otro defecto subsanable, se requerirá al solicitante para que proceda a su subsanación en el plazo máximo de 10 días hábiles, a contar desde el siguiente a la notificación del requerimiento, indicándole que, de no hacerlo así, se le tendrá por desistido de su solicitud. |
| <i>Epea:</i> | <i>Plazo:</i> |
| Eskabideak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oinarri arautzaile hau argitaratzen denetik 2024ko urriaren 31ra arteko epean aurkeztuko ahalko dira, betiere, data hori baino lehen eskainitako beka guztiak esleituak ez baldin badaude. | Las solicitudes se podrán presentar a partir de la fecha de publicación de la convocatoria de las presentes bases en el BOB hasta el 31 de octubre de 2024 , siempre y cuando no hayan sido asignadas previamente el total de las becas ofertadas. |

| | |
|---|--|
| Eskaerak aipatutako epeez kanpo aurkezten badira, ez dira onartuko, eta izapide gehiago egin gabe artxibatuko dira. | La presentación de las solicitudes fuera de los plazos mencionados dará lugar a la desestimación de las mismas sin más trámite. |
| 4. artikulua.- BEKAREN ZENBATEKOA | Artículo 4.- CUANTÍA DE LA BECA |
| Bekaren hileko zenbatekoa 850 eurokoa izango da, bekadunak jasoko duena, eta 71,68 eurokoa, gaur egun eskuragarri dauden datuen arabera, lanekoak ez diren praktikak egiteari dagokion epigrafean Gizarte Segurantzaren kuotak ordaintzeko. Nolanahi ere, bigarren zenbateko hori Gizarte Segurantzak eguneratu ahal izango du, eta, horretarako, aldez aurretik ebaezpena eman ondoren, zenbateko hori handitu egingo da. Emakidaren gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da. | La cuantía mensual de la beca será la suma de 850 euros, que percibirá la persona becada, y de 71,68 euros, según datos disponibles a la fecha, para costear las cuotas de la seguridad social en el epígrafe correspondiente a la realización de prácticas no laborales, sin perjuicio de que este segundo importe sea actualizado por la Seguridad Social y conlleve un aumento de concesión, previa resolución emitida al efecto. El periodo máximo de concesión será de 6 meses. |
| Eskatzaileen artean banatzeko gehienezko zenbatekoa 61.250,88 eurokoa izango da. Gastu hori aplikatzeko den aurrekontu-aplikazioaren kontura. | La cantidad máxima a distribuir entre las personas solicitantes será de 61.250,88 euros, realizándose el gasto con cargo a la aplicación presupuestaria que sea de aplicación. |
| Hasierako aurrekontu-kreditua ez da mugatzailea izango, eta, beraz, beharrezkoa izanez gero, kreditu hori handitu egin beharko da dauden lege-mekanismoen bidez. | El crédito presupuestario inicial previsto no tendrá carácter limitativo debiéndose, en consecuencia, ampliar el mismo si fuese necesario a través de los mecanismos legales existentes. |
| Zenbateko hau 2021-2024ko Leioako Udaleko Diru-laguntzen Plan Estratégicoan jasotzen da. | Dicha cantidad aparece recogida en el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Leioa 2021-2024 |
| 5. artikulua.- EMAKIDARAKO PROZEDURA: | Artículo 5.- PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN: |
| Beka hauen emakida prozedura lehia askekoa da, betiere bekaren eskatzailearen profila bat badator enpresetakoren batek eskatutako profilarekin, eta hura finantzatzeko funtsak agortu arte. | El procedimiento de concesión de las presentes Becas es de libre concurrencia, siempre y cuando el perfil de la persona solicitante de la beca se ajuste al perfil demandado por alguna de las empresas, y hasta el agotamiento de los fondos destinados a su financiación. |
| 6. artikulua.- BEKAK EMATEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK: | Artículo 6.- CRITERIOS OBJETIVOS DE OTORGAMIENTO DE LA BECA: |
| Beken onuradunak hautatzeko, bekadunek aurkezten dituzten profilak eta programan parte hartzen duten enpresek eskatzen dituzten profilak hartuko dira kontuan. | Para la selección de las personas beneficiarias de la beca se considerará el perfil que presentan las personas candidatas a ser becadas y el demandado las empresas que participen del programa. |

| | |
|--|--|
| Beken izapideztea Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak- “Lanekoak ez diren praktikak” burutzeko ezartzen dituenak jarraituko dira. | La tramitación de la beca se realizará siguiendo el procedimiento de “prácticas no laborales” que establece Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, para tal fin. |
| Behin, Lanbidek -Euskal Enplegu Zerbitzuak- eta Behargintzak hautagaiek bete beharreko guztiak betetzen dituztela ziurtatuta, azken hautaketa enpresak berak egingo du. Hori, bi hitzarmen sinatuz formalizatuko da, batetik, Lanbidek eta enpresak sinatutako lankidetza-hitzarmena eta bestetik, enpresaren eta bekadunaren artean lanekoak ez diren praktikak egiteko hitzarmena. | La selección de las personas a becar se realizará por cuenta de la empresa, previa verificación por parte de Behargintza y Lanbide- Servicio Vasco de Empleo, del cumplimiento de los requisitos. Este acto se formalizará mediante la firma de dos convenios; un convenio de colaboración suscrito por Lanbide y la empresa y un convenio para la realización de prácticas no laborales entre la empresa y la persona becada. |
| 7. artikulua.- INSTRUUKZIOA ETA EBazPENA | Artículo 7.- INSTRUCCIÓN Y RESOLUCIÓN: |
| Instrukzio organoa Behargintza Saileko zuzendaritza lanak betetzen dituen udal langilea izango da. Ez dagoenetarako, horren ordez teknikari bat izendatu da. | El órgano instructor será la persona empleada municipal que desempeña la dirección del Área de Behargintza. En caso de ausencia se designará a la persona técnica oportuna. |
| Eskabideak Alkatetza Dekretu bidez ebatziko dira organo instruktoreak proposatutakoa jarraituz. | Las solicitudes serán resueltas mediante Decreto de Alcaldía a propuesta del órgano instructor. |
| Deialdi honetan araututako bekak eman ahal izateko, ezinbestekoa izango da horiek emateko unean aurrekontu-baliabide eta kreditu egoki eta nahikoa izatea. | La concesión de las becas regulada por esta convocatoria quedará en cualquier caso condicionada a la existencia de disponibilidad presupuestaria y crédito adecuado y suficiente en el momento de la resolución de concesión |
| Aurretiaz Leioako Udalaren diru-laguntzak lortu izana ez die eskatzaileei inolaz ere aldeko eskubiderik ematen, eta ez dira aintzat hartuko modu horretako aurrekariak emakida berrien kasuan. | Las ayudas obtenidas del Ayuntamiento de Leioa con anterioridad no crean derecho alguno a favor de las personas peticionarias y no se tendrán en cuenta los precedentes en tal sentido como criterio determinante para una nueva concesión. |
| Interesatuei jakinarazpena egiteko epea 10 egunekoa izango da, ebazpena egiten den egunetik aurrera. Jakinarazpena horretarako jakinarazitako posta elektroniko bidez bidaliko da. | El plazo de notificación a las personas interesadas será de 10 días a partir de la resolución. La notificación se realizará por correo electrónico indicado a tales efectos por el solicitante. |
| Epea igarota, ez balego eskaerari legokiokeen beren-beregiko ebazpenik, ukatutzat emango da, aurrerago beren-beregi ebatz litekeen arren. | En el caso de que transcurrido dicho plazo no conste resolución expresa de la solicitud, se entenderá que la misma ha sido denegada, sin perjuicio de que con posterioridad sea resuelta de forma expresa. |

| | |
|---|--|
| Leioako Udalak behar den moduan emango du jakitera expediente an jasotako informazioa, aplicatu beharreko araudiarekin bat etorriz. | El Ayuntamiento de Leioa dará la debida publicidad a la información contenida en el expediente de acuerdo con la normativa de aplicación. |
| 8. artikulua.- ONURADUNEN BETE BEHARRAK | Artículo 8.- OBLIGACIONES DE LAS PERSONAS Y EMPRESAS BENEFICIARIAS |
| Deialdi honen xede diren bekak lortzen dituzten enpresek/erakundeek eta baita gazteek ere, honako betebehar hauek bete beharko dituzte: | Tanto las empresas/entidades, como las personas jóvenes que obtengan las becas objeto de la presente convocatoria deberán cumplir con las siguientes obligaciones: |
| Bekak esleitzeko kontutan hartu direnetan aldaketaren bat gertatutakoan Behargintza Leioan horren berri eman. | Comunicar a Behargintza Leioa la modificación de cualquier circunstancia que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la beca. |
| Beken garapenean eragina izan dezakeen gertakizunen bat emandakoan Behargintza Leioan horren berri eman. | Comunicar a Behargintza Leioa cualquier eventualidad que afecte sustancialmente al objeto o naturaleza del desarrollo de las prácticas |
| Praktika horiek ez dute inola ere esan nahi enpresaren eta praktiketako pertsonaren artean lan-harremanik dagoenik. | Estas prácticas no suponen, en ningún caso, la existencia de relación laboral entre la empresa y la persona en prácticas. |
| <i>BEKADUNAREN betebehar zehatzak:</i> | <i>Obligaciones específicas de la PERSONA BECADA</i> |
| <ul style="list-style-type: none"> - Hitzarmena sinatzea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eredu normalizatuaren arabera. Enpresa eta bekadunaren arteko hitzarmena, urriaren 31ko 1543/2011 errege dekretuak arautzen dituen enpresan lanekoak ez diren praktikak egiteko. | <ul style="list-style-type: none"> - Suscribir el convenio según modelo normalizado de Lanbide- Servicio Vasco de Empleo. Convenio para la realización de prácticas no laborales en empresa reguladas por el real decreto 1543/2011, de 31 de octubre suscrito entre la empresa y el /la becario/a. |
| <ul style="list-style-type: none"> - Deialdian eskatutako dokumentazio guztia behar bezala betetzea eta aurkeztea. | <ul style="list-style-type: none"> - Realizar correctamente el cumplimiento de toda la documentación requerida en la convocatoria. |
| <ul style="list-style-type: none"> - Lanbidek eta enpresak izenpetutako hitzarmenean jasotako betebeharra eta ordutegiak betetzea. | <ul style="list-style-type: none"> - Cumplir con el horario y labores/funciones a realizar estipuladas en el convenio suscrito por la persona becada y la empresa. |
| <i>ENPRESAREN betebehar zehatzak:</i> | <i>Obligaciones específicas de la EMPRESA /ENTIDAD</i> |
| <ul style="list-style-type: none"> - Deialdian eskatutako dokumentazio guztia behar bezala betetzea eta aurkeztea. | <ul style="list-style-type: none"> - Realizar correctamente el cumplimiento de toda la documentación requerida en la convocatoria. |
| <ul style="list-style-type: none"> - Lankoak ez diren praktikak burutzeko hitzarmena sinatzea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eredu normalizatuaren arabera. Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta enpresaren arteko hitzarmena, enpresan urriaren | <ul style="list-style-type: none"> - Suscribir un convenio para la realización de las prácticas no laborales con Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, según modelo normalizado. Convenio para la realización de prácticas no laborales en empresa reguladas por el Real Decreto 1543/2011, de 31 de octubre suscrito |

| | |
|---|---|
| 31ko 1543/2011 Errege Dekretuak arautzen dituen lanekoak ez diren praktikak egiteko. | entre Lanbide- Servicio Vasco de Empleo y la empresa. |
| <ul style="list-style-type: none"> – Hitzarmena sinatzea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eredu normalizatuaren arabera. Enpresa eta bekadunaren arteko hitzarmena, urriaren 31ko 1543/2011 errege dekretuak arautzen dituen enpresan lanekoak ez diren praktikak egiteko. | <ul style="list-style-type: none"> – Suscribir el convenio según modelo normalizado de Lanbide- Servicio Vasco de Empleo. Convenio para la realización de prácticas no laborales en empresa reguladas por el real decreto 1543/2011, de 31 de octubre suscrito entre la empresa y el /la becario/a. |
| <ul style="list-style-type: none"> – Bekadunari dagokion zenbatekoa eta gizarte segurantzari dagokionaren ordainketa aurreratzea. | <ul style="list-style-type: none"> – Anticipar el abono de las cantidades correspondientes a la Seguridad Social y a la persona en prácticas |
| <ul style="list-style-type: none"> – Praktikaldiak dirauen bitartean, bekadunaren egitekoen jarraipena egin eta laguntza eman. | <ul style="list-style-type: none"> – Realizar un seguimiento y acompañamiento a la persona en prácticas durante su estancia en la empresa/entidad. |
| <ul style="list-style-type: none"> – Programa honetan parte hartzen duten enpresek, eskaera orrian bekadunak bete beharreko funtzi eta zereginak zehaztu beharko ditu horien edukiak eta bekadunaren profila bat datoza bermatze aldera. | <ul style="list-style-type: none"> – La empresa participante en el programa deberá de detallar en la ficha de inscripción las funciones y tareas a realizar con el fin de evaluar la adecuación de las mismas con el perfil de la persona becada. |
| <ul style="list-style-type: none"> – Praktikak enpresaren lantokian egingo dira, enpresak berak izendatutako tutore baten zuzendaritzapean eta ikuskaritzapean, halaber, praktikaldia bukatutakoan, bera izango da praktiken azken oroitza-txostenaren egitearen arduraduna. | <ul style="list-style-type: none"> – Las prácticas se realizarán en el centro de trabajo de la empresa bajo la dirección y supervisión de un/a tutor/a quien se encargará de realizar la memoria final de prácticas. |
| 9. artikulua.- BEKAREN JUSTIFIKAZIOA. | Artículo 9.- JUSTIFICACIÓN DE LA BECA. |
| Hilero, enpresak Beharginza Leioa-ra bidali beharko du bekaren zenbatekoaren ordainketa eta bekadunaren gizarte segurantzian Lanekoak ez diren praktiken epigrafeari dagokion ordainketaren ordain agiriak. | Mensualmente, la empresa deberá remitir a Beharginza Leioa el justificante de pago correspondiente al abono de la cantidad que corresponde a la persona que realiza las prácticas y a la cotización de esta en la seguridad social en el epígrafe que corresponde. |
| Praktiken ebaluazio zuzena egin ahal izateko, praktikak amaitzerakoan eta ziurtagiria eman aurretik, enpresak Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuari praktiken garapenaren amaierako memoria deskribitboa entregatu beharko dio, eta horretan, gutxienez, honako informazio hau jasoko da: <ul style="list-style-type: none"> – Praktiketan egon den pertsonaren bertaratze portzentajea. – Egindako praktiken benetako orduak. | Al efecto de poder realizar la correcta evaluación de las prácticas, al término de las mismas, y previa a su certificación, la empresa entregará a Lanbide-Servicio Vasco de Empleo una memoria final descriptiva del desarrollo de las prácticas, en la que se recogerá al menos la siguiente información: <ul style="list-style-type: none"> – Porcentaje de asistencia de la persona en prácticas. – Horas reales de prácticas realizadas. |

| | |
|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> - Praktiketan egon den pertsonak benetan egindako lanen deskribapen laburra - Helburuen lorpenari buruzko deskribapena. - Helburu horiek zein mailatan bete diren egiaztatzeko erabili den metodologia. - Praktika etetearen zioa, aurreikusitako datan baino lehen bukatu bada. | <ul style="list-style-type: none"> - Breve descripción de las tareas efectivamente realizadas por la persona en prácticas. - Descripción relativa a la consecución de los objetivos - Metodología utilizada para la verificación del grado de cumplimiento de los mismos. - Causa de la interrupción de la práctica, si ésta hubiera finalizado antes de la fecha prevista. |
| Amaierako memoria enpresako legezko ordezkariak, praktiketako tutoreak eta praktiketan egon den pertsonak sinatu beharko dute. | La memoria final deberá ir firmada por el representante legal de la empresa, el tutor de las prácticas y la persona en prácticas. |
| Enpresak praktikak egin dituen pertsonari ziurtagiri bat emango dio, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako eredu LAN-F aplikazioaren bitartez, eta hor egindako praktikak, prestakuntza-edukiak, iraupena eta praktika horiek egiteko epea azaldu beharko dira. | La empresa entregará a la persona que ha realizado las prácticas un certificado, en modelo proporcionado por Lanbide-Servicio Vasco de Empleo a través de LAN-F, en el que constará la práctica realizada, los contenidos formativos, su duración y el periodo de realización. |
| Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako diplomen erregistroa izango du, eta Enplegu Zerbitzu Publikoen Informazio-sisteman jasoko dira | Lanbide-Servicio Vasco de Empleo llevará un registro de los diplomas expedidos y se recogerán en el Sistema de Información de los Servicios Públicos de Empleo. |
| Azken justifikaziorako gehieneko epea 2 hilabetekoa izango da, praktikaldia amaitu eta hurrengo egunetik aurrera. | El plazo máximo para la justificación final será de 2 meses contados a partir del día siguiente de la fecha de finalización del periodo de prácticas. |
| 10. artikulua.- BATERAGARRITASUNA. | Artículo 10.- COMPATIBILIDAD. |
| Diru-laguntza hauek deitura edo dei daitezkeen beste beka batzuekin ez dira bateragarriak. | Estas becas no son compatibles con cualesquier otras convocadas o que se convoquen. |
| 11. artikulua.- BEKA ORDAINTZEA. | Artículo 11.- PAGO DE LA BECA. |
| Hilabetea bukatutakoan, enpresak bekaren hileko zenbateko osoaren ordainketa egingo du, hots, bekadunari dagokion zenbatekoaren ordainketa eta bekadunaren gizarte segurantz Lanekoak ez diren praktiken epigrafeari dagokiona. | Al finalizar el mes, la empresa realizará los pagos correspondientes al coste total mensual de la beca; importe correspondiente a la persona becada y el importe correspondiente a la cotización en la seguridad social de esta. |
| Halaber, hilero, enpresak Behargintza Leioa-ra bidali beharko du bekaren zenbatekoaren ordainketa eta bekadunaren gizarte segurantz Lanekoak ez diren praktiken epigrafeari dagokion ordainketaren ordain agiriak. | Asimismo, al finalizar el mes, la empresa remitirá a Behargintza Leioa justificante de pago correspondiente al abono de la cantidad que corresponde a la persona que realiza las prácticas y |

| | |
|---|---|
| | a la cotización de esta en la seguridad social en el epígrafe que corresponde. |
| Beharrezko dokumentazioa jasotakoan, alkatez-dekreto bidez onartuko da enpresari dagokion zenbatekoa ordaintza, eta zenbateko hori kontuan sartuko da. | Recibida la documentación necesaria se aprobará mediante decreto de alcaldía el abono de importe correspondiente a la empresa y se realizará el ingreso en cuenta de dicha cantidad. |
| 12. artikulua.- EBAZPENA ALDATZEA. | Artículo 12.- MODIFICACIÓN DE LA RESOLUCIÓN. |
| Beka emateko aintzat hartu diren irizpideen gaineko edozein aldaketak, ebazpene aldatzea ekar dezake. | Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la beca, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de la concesión. |
| 13. artikulua.- BEKA ITZULTZEA | Artículo 13.- REINTEGRO DE LA BECA |
| 1.- Jasotako laguntza Udal Diru-kutxara itzuli behar izatea gerta liteke, diru-laguntza ordaindu zenetik eta itzulketaren bidezkotasuna erabaki bitarteko epearri legozkiokeen atzerapen interesak barne, honako kasuren bat jazoko balitz: | 1.- Procederá el reintegro a las Arcas Municipales de la ayuda recibida, con los intereses de demora correspondientes desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en la que se acuerde la procedencia del reintegro, cuando se dé alguno de los supuestos siguientes: |
| a) Emandako zenbatekoa eskatutako xederako ez erabiltzea. | a) No destinar la cuantía concedida a la finalidad concreta para la que se solicitó. |
| b) Diru-laguntza jaso izana horretarako beharrezkoak ziren baldintza guztiak bete barik. | b) Haber obtenido la subvención sin reunir las condiciones requeridas para ello. |
| c) Onuradunari leporagarriak diren arrazoia direla-eta, deialdi honetako 8. artikuluan onartutako obligazioekin ez betetzea. | c) El incumplimiento, por razones imputables a la persona beneficiaria, de las obligaciones asumidas en el artículo 8 de la presente convocatoria. |
| d) Justifikatzeko obligazioarekin ez betetzea deialdi honetako 9. artikuluan zehazten diren terminoetan. Gastuaren justifikazioa partziala egingo balitz, justifikatu barik geratu den zenbatekoari legozkiokeen zenbateko baliokidea itzuli beharko litzateke. | d) El incumplimiento de la obligación de justificación en los términos establecidos en el artículo 9 de la presente convocatoria. Si se realizase una justificación parcial del gasto, habrá de reintegrarse la cantidad equivalente al gasto que haya quedado sin justificar. |
| e) Bestelako erakunde publiko edo pribatuek emandako diru-laguntza guztien batuketaren ondoriozko gehiegizko finantzazioa. Hala balitz, onuradunak Leioako Udalak emandako zenbatekoa itzuli beharko luke, Udalaren ekarpentzarako proporcionala, finantzatutako zenbateko osoarekin alderatuz. | e) La sobrefinanciación por concurrencia con otras subvenciones o ayudas de otras instituciones, públicas o privadas, en cuyo caso la beneficiaria tendrá la obligación de reintegro de la cuantía concedida por el Ayuntamiento de Leioa en proporción al importe aportado por éste en relación con el total financiado. |

| | |
|---|---|
| f) Beka esleitzen duen ebazpenean onuradunari ezarritako baldintza edo obligazioekin ez betetzea. Kasu horretan, hausteen larritasuna baloratuko da itzuli beharreko zenbatekoa erabakitzeko, ekitate eta proportzionaltasun printzipioak aintzat harturik. | f) El incumplimiento de las condiciones u obligaciones impuestas a las personas beneficiarias en la resolución por la que se concediera la beca. En este caso, se tendrá en cuenta la gravedad de los incumplimientos cometidos para determinar la cuantía a reintegrar, atendiendo a los principios de equidad y proporcionalidad. |
| 2.- Guztira edo zati baten itzuli beharreko zenbatekoa erabakitzeko, proportzionaltasun eta ekitate printzipioen arabera egingo da. Horretarako, kasu konkretu bakotzeko ezaugarriei erreparatuko zaie. | 2.- Para la determinación de la cuantía a reintegrar, total o parcialmente, se atenderá en cualquier caso a los principios de proporcionalidad y equidad, para lo cual se estará a las circunstancias de cada caso concreto. |
| 3.- Diru-itzulketa exijitzen duen ebazpena Alkatetzak emango du. | 3.- La resolución por la que se exija el reintegro se dictará por la Alcaldía. |
| 4.- Diru-laguntzen Lege Orokorreko II. Kapituluko II. Tituluarekin ados, administrazio prozedura erkidearen araudiak diotenaren mende egongo da itzulketa-espedientea. Espediente horretan, audientzia tramitea emango zaio interesdunari 15 egunez. | 4.- De conformidad con el capítulo II del Título II de la Ley General de Subvenciones, el expediente de reintegro se ajustará a las normas de procedimiento establecidas en la normativa de procedimiento administrativo común y en el mismo se dará trámite de audiencia a la persona interesada por el plazo de 15 días hábiles. |
| 5.- Diru-laguntza itzultzeko obligazioa egiaztatuta, organo eskudunak ebazpena emango du betekizun hori aitortzeko. Ebazpenean dirua itzultzeko beharra eragiten duen arrazoia, itzuli behar den zenbatekoa eta diru-sarrera egiteko epe voluntarioa beren-beregi aipatu behar dira. Halaber, ohartaraziko da, itzulketa epe barruan egin ezean, premiamendu bidez egingo dela. | 5.- Verificada la obligación de devolución de la subvención, el órgano competente dictará resolución declarando tal deber. Dicha resolución será motivada, con indicación expresa de la causa que origina el deber de reintegro, así como la cuantía que ha de devolverse y plazo voluntario de ingreso, con advertencia de que, caso de no efectuar el reintegro en el plazo previsto, se procederá por la vía de apremio. |
| Azken xedapena. | Disposición Final. |
| Ondokoak dira oinarri hauetan ezarritakoa babesten duten arauak eta xedapenak: | La normativa y disposiciones en las que se ampara lo establecido en las presentes bases son las siguientes: |
| – 1828/2024 zenbakidun Alkatetza Dekretua, 2024ko maiatzaren 17koa, “Bizkaiko Foru Aldundiaren, Berango, Leioa eta Sopelako udalen arteko lankidetza-hitzarmena 2024 urterako, gazteriaren arloko politika integrala ezarri, bultzatu eta garatzeko” lankidetza-hitzarmenaren atxikimendua onartzen duena. | – Decreto de Alcaldía N° 1828/2024 de 17 de mayo de 2024 por el que se aprueba la suscripción al “Convenio de Colaboración entre la Diputación foral de Bizkaia y los ayuntamientos de Berango, Leioa y Sopela para la implantación, impulso y desarrollo de políticas integrales de juventud, durante el año 2024” |

| | |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> – 1543/2011 Errege Dekretua, urriaren 31koa, enpresetan egiten diren eta lan-arlokoak ez diren praktikak arautzen dituena. | <ul style="list-style-type: none"> – Real Decreto 1543/2011, de 31 de octubre por el que se regulan las prácticas no laborales en empresas. |
| <ul style="list-style-type: none"> – 1493/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, formakuntza programetan parte hartzen dutenak Gizarte Segurantzaren Erregimen orokorrean sartzeko zehaztapenak eta baldintzak arautzen dituena. | <ul style="list-style-type: none"> – Real Decreto 1493/2011, de 24 de octubre, por el que se regulan los términos y las condiciones de inclusión en el Régimen General de la Seguridad Social de las personas que participen en programas de formación. |
| <ul style="list-style-type: none"> – 6/2016 Errege Lege Dekretua, abenduaren 23koa, Gazte Bermearen Sistema Nazionala bultzatzeko presako neurriak arautzen dituena. | <ul style="list-style-type: none"> – Real Decreto-Ley 6/2016, de 23 de diciembre, de medidas urgentes para el impulso del Sistema Nacional de Garantía Juvenil. |
| <ul style="list-style-type: none"> – PJC/281/2024 Agindua, martxoaren 27koa, urtarrilaren 29ko PJC/51/2024 Agindua aldatzen duena, 2024ko ekitaldirako gizarte-segurantzako kotizazioari, langabeziari, jarduera uzteagatiko babesari, Soldatak Bermatzeko Funtsari eta lanbide-heziketari buruzko legezko arauak garatzen dituena. | <ul style="list-style-type: none"> – Orden PJC/281/2024, de 27 de marzo, por la que se modifica la Orden PJC/51/2024, de 29 de enero, por la que se desarrollan las normas legales de cotización a la seguridad social, desempleo, protección por cese de actividad, Fondo de Garantía Salarial y formación profesional para el ejercicio 2024. |
| <p>Diru-laguntzen deialdi honek aurre ikusten ez dituen kasuetarako, honako lege eta araudiak aplikatuko dira: azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra; azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; eta Leioako Udalak ematen dituen Diru-laguntzen Oinarri Arautzaleak onartzen dituen Ordenanza Orokorra.</p> | <p>En lo no previsto en esta convocatoria de subvenciones será de aplicación la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, así como la Ordenanza General por la que se aprueban las Bases Reguladoras de las Subvenciones que se concedan por el Ayuntamiento de Leioa.</p> |
| DAGOZKION ERANSKINAK <ul style="list-style-type: none"> – Gaztedi UK Bekak 2024–Eskabidea/Inscripción: <i>GAZTEAK/JÓVENES</i>. – Gaztedi UK Bekak 2024–Eskabidea/Inscripción: <i>ENPRESAK/EMPRESAS</i>. | ANEXOS QUE CORRESPONDAN <ul style="list-style-type: none"> – Gaztedi UK Bekak 2024–Eskabidea/Inscripción: <i>GAZTEAK/JÓVENES</i>. – Gaztedi UK Bekak 2024–Eskabidea/Inscripción: <i>ENPRESAK/EMPRESAS</i>. |